



# José Luis Portugal, bizitza guztian kantari

Jose Antonio Mujika

**B**adira pertsona batzuk leku jakin batean gogoratzen ditugunak. Leku hartan ikusi izan ditugu beti, eta, ikusiaren ikusiaz, 'ohikoa' egin zaizkigu han. Horrelaxe gogoratzen dugu gutako askok José Luis Portugal kantari ezaguna. Donostia inguruko hileta-elizkizunetan gogoratzen dugu hura beti, koruan kantari, bere ahots gustagarriaz eliza osoa betetzen zuela. 'Ohikoa' zen guretzat, elizkizun horietan.

Besteak beste, Altza, Herrera, Mirakruz, Ategorrieta, Gros, Amara eta Ibaetako elizetan aritu zen José Luis urte askotan herritarrei zerbitzu hori eskaintzen. Baita, jakin dudanez, Hernaniko Ereñozukoan ere. Garai batean beharbada latinez kantatuko zituen elizako kantuok: *In paradisum deducant te Angeli* kantu itxaropentsua, esate baterako ('Paradisura eraman hazatela Aingeruek'). Gerora, ordea, bistan da, gaztelaniaz eta euskaraz egiten zien azken agurra gure hilei, *Tú nos dijiste que la muerte no es el final del camino* eta *Beti-betiko zoriona gure hilei eman, Jauna* kantak eta horrelakoak bihotzez abestuz. Ez hori bakarrik, ordea; ezkontzetan ere bazekien bere kantu-zerbitzua eskaintzen, hala eskatzen ziotenean.

Nik ere behin baino gehiagotan entzun nuen José Luisen ahotsa elizkizun horietan. Ez nuen, ordea, bera zuzenean ezagutu, eta banuen hari buruz zer-bait gehiago jakiteko gogo, susmoa bainuen ez zela hiletetara mugatzen haren ekarria musika kontuan. Haren hurbilekoengana jo nuen, bada, berri eske, eta berehala ohartu nintzen guztiz zuzena zela nire susmoa. Haren semeak eta iloba batek esanda jakin dut elizetako zerbitzu horietaz gain ibilbide luzea zuela José Luisek egina kantuaren munduan. Kantari profesional izan gabe ere, bizitza guztian aritu zela hura kantua lantzen.

Merezi du, nire ustez, kantari-bizitza hori gogoratzea.

## Hasiera

Erreterian jaio zen José Luis Portugal Alonso, 1925eko martxoaren 23an, Santa Klara kalean, hiru seme-alabatan bigarrena. Ama, Consuelo Alonso Vázquez, Andoainen jaioa, Erreteriar etorri zen ezkondukoan, eta hemen bizi izan zen, erreteriar eginda, 102 urte handi beteta hil zen arte. Aita, Matias Portugal Recalde, Egi-Eder baserrikoa zen, Santa Kruz apaizarekin ibilitako Luis Portugalen semea. Aitona horrengandik hartuko zuen beharbada José Luisek bizitzan erakutsi zuen adorea. Izan ere, bazekien José Luisek ere ausarta izaten, hala tokatzen zenean. Gerra garaian, 12 urte zituela, bakar-bakarrik joaten omen zen gauzez Erreteriatik Egi-Eder baserrira.

Esaten dute txikitik ereindako haziak fruitua ematen duela gero bizitza guztian zehar. Eta egia izango da hori. José Luisen kasuan behintzat hala izan zen. Umea zelarrik sartu zioten musika-zaletasuna, eta gerora ez zuen inoiz bazterrera utzi. Zortzi urterekin hasi omen zen solfeoa ikasten D. Juan Bautista Olaizola apaiz eta musikari ezagunarekin, Onbide zaharreko etxabehean. Handik laster, parrokiako tiptleen koruan sartu zuen apaiz horrek berak.

Musika maite zuen José Luisek; baina, haurra izaki, lagunekin jolasean ibiltzea ere gustukoa zuen, noski. Hala, egun batean entsaiora piper egin, eta lagunekin jolastera joan omen zen. Apaizak ama Consuelori eman zion abisu, eta honek berehala mutila eskutik hartu eta entsaiora eraman omen zuen. Erremedio bikaina. Lehenbiziko eta azken piperra izan omen zuen hura José Luisek, berak irribarrea ezpainetan zuela kontatzen zuen bezala; amari zor omen zion kantuan jarraitu izana.

Tiptletan hasita, ez zion gero inoiz utzi abestatzat batean edo bestean kantatzeari. Aurrena, gaztetan, Erreteriar Parrokiako Koruan hartu zuen parte. Handik, bere bizitzan garrantzi handia izan-



go zuen saltoa eginda, Juan Gorostidik zuzentzen zuen Donostiako Orfeoira pasatu zen. Eta harekin hasi zituen gerora maiz samar eta pozik asko egingo zituen kantu-bidaiak. Madrilen izan zen 1949an; hurrengo urtean, berriz, Orfeoiarekin batean, Nizan, Montecarlon eta Erroman.

Maria Teresa Arteagarekin ezkondu zen 1951ko urtarrilaren 4an, Lezoko Kristo Donearen basilikan, eta Pasaia Antxon jarri ziren ezkonberriak bizitzen. Han ere ez zion kantu-lanari utzi José Luisek, bi urte lehenago sortutako Coral Pasaitarra abesbatzan sartu baitzen, eta harekin, besteak beste, Errioxan eta Zaragozan izan zen.

Musika hutsetik ezin zen bizi, tamalez, eta bes-telako lanetan aritu behar izan zuen José Luisek ere, eguneroko ogia irabaziko bazuen. Besteak beste, Errenteriako *Pekin*-en aritu zen aurrena eta Pasaiaiko *Victorio Luzuriaga*-n gero, ordu libreak kantuari eskainiz betiere.

## Kantari beti

Donostiako Orfeoian urte batzuk egin eta gero, hura utzi eta Easo Abesbatzan sartu zen. Urte asko eta oparoak egin zituen koru horretan. Hala, 1959an Nizan eta Milanen izan ziren abesten, 1961ean Ingalaterran, 1966an Lisboan, eta ondoko urteetan Paris, Venezia, Nantes eta beste zenbait hiri bisitatu zituzten. Irteerarik inportanteena, beharbada, 1969an Errusiara eta Ingalaterrara egin zutena izan zen.

'Bidai' horietako kontzertuak behar bezala prestatzeko lan asko egin behar izaten zuten aurretik. Serio hartu beharreko entsaio asko, alegia. Eta serio saiatzen zen haietan José Luis. Zorrotza omen zen horretan. Ez omen zuen onartzen koru batean izena eman, eta gero entsaioetara joan-ez joan ibiltzea.

Kontzertuez beste, Easo Abesbatzak eginiko grabazioetan ere parte hartu zuen José Luisek, koru-kideekin batera. Hala, euskal folkloreko abestiekin

disco bat baino gehiago plazaratu zuten; baita Igor Strawinskiren *Oedipus Rex* obra, eta *Misa andaluza* eta *Misa criolla* ere, besteak beste.

Hainbesteko zaletasuna izanik, Easo Abesbatza utzi gabe beste talde txikiagotan ere aritu zen kantari. Hala, Añorgako Ertizka zortzikotean parte hartu zuen, ia heriotza arte, Alemanian, Belgikan eta Frantzian ere abestuz. Zortzikote horrekin Euskal Herrian antolatzen diren sariketetan sari bat baino gehiago irabazi zuen. Gaztelubide zortzikotearekin ere aritu zen, inoizka.

Ez zen, ordea, hor bukatzen haren kantu-lana. Gaztetan Erretereriako parrokiako abesbatzan izan zuen hasiera ez ahazteko-edo, Elizako koru batzuetan ere hartu zuen parte. Artzai Onaren katedraleko koruan, esate baterako, eta bizileku zuen Pasaia Antxoko parrokiakoan. Elizari eginiko kantu-zerbitzu hori, bestalde, beste eliza askotako elizkizunetara zabaldu zuen urte luzetan, hasieran esan dudana bezala.

## Azkena arte kantuan

Kantu-lan hori txukun egiteko, bere eskuz idazten zituen partiturak, bere erara egokituak. Hark eginiko erlijio-kantuen partiturak gorago aipatutako elizetan zabalduak daude. Multzo polita osatzen omen dute.

Gizon alaia omen zen José Luis, mahai on baten aurrean esertzeari uko egiten ez ziona. Jatun ona zen, eta ohiko janariekin konformatzen erraza bazen ere, jaki bereziak dastatzea ere gustukoa zuen, eta ondo baliatzen zituen koruetako bidaiek-eta horretarako eskaintzen zizkieten aukerak. Ez omen zituen alferrik galtzen uzten.

Lagunartean eta familia giroan kantatzeko ohitura bazuenetz galdetuta, bai-eta-ezka erantzun dida-

te José Luisen hurbilekoek. Ez omen zitzaion gustatzen horrelakoetan bakarrik kantatzea. Nahiago omen zuen denek taldean abestea, eta orduan bai, orduan animatzen omen zen bera ere abestera. Baina, hala ere, behin eta berriz eskatuz gero, ba omen zekien amore ematen, eta gustuko abestiren bat kantatzen omen zuen orduan mahai inguruan bildutako gozamenerako. *Ay gaxua*, esate baterako, edo sentimendu handiz abesten zuen *Agur izar ori* abesti zoragarria, Jose Olaizolak Guadalupeko Amaren ohorez idatzi zuena.

Beti esaten omen zuen José Luisek zoriontsu egiten zuela kantuak, pozik sentitzen zela abesten. Ondo dagokio, beraz, hari ere, Argentinara atzerriratu zen Iparraldeko 'bertsulari' Jose Mendiaguek egin zuen kanta ezaguna; honela dio haren lehen estrofak, gure-ra pixka bat egokituta:

*Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi  
Kantuz bidaltzen ditut nik penak ihesi  
Kantuz dudana artean zerbait irabazi  
Kantuz gustura ditut guziak irentsi  
Kantuz ez al dut beraz hiltzea merezi?*

José Luisek merezi izan zuen, bai, ia hil arte kantuan aritzeko grazia. Heriotzara eramango zuen gaitzak mendean hartu zuenean, horixe omen zuen kezka. Kantuan aritzeko moduan jarriko al zen galdetzen omen zien medikuei. Itxaropen hori zuen. Tamalez, ordea, ez zuen horretarako aukerarik izan.

Iazko martxoaren 8an hil zen. Korukide izandako asko bildu ziren haren hiletan, eta kantuz egin zioten agur hunkigarria urte luzetako adiskideari. Semeak oroit-idatz sentitua irakurri zuen.

Goian bego hamaika laguni azken agurra kantuz egin zien kantaria. ■

